

2. Aita Intza berak adierazi du : Narbarte'ko Alkate Jose Oteiza jaunak, ango umeai erakutsi nai die-la landare eta belarñen ikasbidea, zein on eta zein txar diran jakiñarazteko. Nai luke Alkate jaun onek zer-baiten laguntza : edo liburuz edo beste gayez, al dan erexen gauza abek umeai erakusteko. Euskaltzaindiak beronek lezaken laguntza agintzen dio.

3. Euskaltzaindiak erabaki du : Orain artean argitaratu diran eskola liburuak biltzea. Oretarako euskaltzain bakoitzak, bere alderdian idoro lezakena urango batzaraldirako bekar.

4. *Euskeraren adiskidea*'z. Ez dira oraindik bildu ta ez daukate, euskaltzainburuak dionez, biltzeko adorerik ere.

5. Urkijo jaunak Odon Apraiz jaunaren oar batzuek irakuri ditu. Onek udaran egin duen lanaren adibide bezela datoz oar oiek. Lana Bidasoaz aruzko *Erizkizundi-Irukoitza*'ri dagokio:

Apraiz jaunak ez du nai izan bere lanaren saririk. Ematen bazaio, beste euskal-lanetan eralkiko duela dio. Euskaltzaindiaren eskerak.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta ototzez bukatu da batzaraldia.

Donostia'n, Aldundi - Jauregian, 1924'ko Urriaren 31'an.

Auruko batzaraldian bildu diran euskaltzain berak, A. Intza ezik, datoz.

1. Azkue jaunak bere *Morfologia* irakuri du eta

oren irakurtz eta azterketan igaro da batzaraldi onen asti guzia.

Otoitza egin-da amaitu da batzaraldia.

Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1924 'ko Azaroa 'ren 21 'an.

Egun ontan euskaltzain abek bildu dira: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeretxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza ta Lakonbe.

Otoitez asi da batzaraldia.

1. Aita Intza'k iragarí digu: Napa'oa'ko euskaldunak laxter bilduko dirala euskal-lan batzuek eragiteko, emakumeak ere arazo ontara deiturik. Emakume aben buruzagi *Markesa, de Besolla* deitzen dan euskal-andre agurgaríia izan liteke, onen bitartez, beste emakume asko érez sartu ditezen arazo ontan. Asmo utsa da oraindik gai auxe. Alaz ere, Euskaltzaindiak poz-pozik onesten ditu aita Intza'ren lenbiziko uratz abek.

2. Bilbo'ko Udalak idazki bat igortzen digu esanik: Aurtengo Urri'aren 7'an erabaki au artu zuela: a) Euskal-tzaindiari galdetu, nola erabaki ote lezaken euskal-ikastaroa; b) iragartzen digu lendik 12 irakasle dituela bere ikastoletan, bañan 4 naikoa zaizkiola aurrerantzean. Amabi irakasle oietatik, lau aukeratu lezazkike Euskaltzaindiak, beroni egoki eta jakintsuenak deritzazkionak. Amabietatik, iñor ezpaltiz egoki ta diña, lau beñi izendatzeko Euskaltzaindiari damayo eskubidea. Ganera onek esan bezayo Udala-